

Kimaren V. piropo lehiaketa. Jasotako piropoak

1. Egunsenti guztiak zu bezala izanen balira, egunero jaikitzea mereziko luke.
2. Zu karamelo goxoa, beti nire ahoan.
3. Zure begiak itsasoa bezalakoak dira, gaixoa ni, igeri egiten ez dakidala.
4. Hondartzan nengoenean, uran izar bat ikusi eta han konturatu nintzen zu gabe oso triste nagoela.
5. Goxokiz betetako denda batean, zu zara goxokiena.
6. Fortxoko merengea baina goxoago zara zu.
7. Gosearen urteko txorizoa baino hobe zaude.
8. Izar bateko argia baino politagoa zara.
9. Zure aita lapurra izango zen, zergatik joan da zerura eta hartu ditu bi izar eta begietan jarri dizu eta eguzkia hartu du eta zure alaitasuna sortu du.
10. Zure begiradan galtzen banaiz, paradisuari egongo naiz.
11. Zer emango nuke nik, zure kantzontziloa (garbia mesedez) izateko, polita!!
12. Ikusmenik gabe, entzumenik gabe, dastamenik gabe, ukimenik gabe, usaimenik gabe..., baina ezin dut zu gabe, zu baitzara nire bizitzaren zentzu bakarra.
13. Zure begiek ene iluntasun honetan distiratsen dute, eguzkiak goizean bezela.
14. Zure begiak hondartza balira, beti uretan egonen nintzateke.
15. Zuregatik ausarta izango nintzateke dantzatzeko ganba baten biboteetan.
16. Maitte zaitut polita zealako, ta polita zea maitte zaitudalako.
17. Zu nire bihotzaren maitasuna zara.
18. Lorategiko lorerik ederrena zara zu.
19. Zure ezpainak bonboiak baino goxoagoak dira.
20. Fortxoko tarta bat baino goxoagoa zara, polita!
21. Non dago gozokia? Zu zara nik ikusten dudana bonboi bakarra.
22. Konparaezina zara.

23. Zu zara aingerua, zerutik jaitsita eta bere maitasuna oparitu behar zidan.
24. Leihoan dagoen arrosa baino politagoa zara.
25. Nire bidea argitzen duen argia zara.
26. Loreak baino politagoa zara.
27. Arrosa bat baino politagoa zara eta azukrea baino gozoagoa zara.
28. Zu izarrak bezain polita zara.
29. Tximeleta bat baino politagoa zara.
30. Ilargia baino ederragoa zara.
31. Zu ume txiki bat baino politagoa zara.
32. Zure begiak, zer politak diren, zer politak, ilargia bezalakoak, zer ilargi? Ilargi eder eta argitsua.
33. Zure edertasuna oso handia da, zure begiak bezain handia, zure begi politak ilargia bezalakoak, ilargi polita zu bezalakoak.
34. Ni zurekin egoten naizenean, zerura igotzen naiz; triste nagoenean lurra bueltaka hasten da; zerua beltza bihurtzen da orduan hor hasten da bien amorea.
35. Zu nire ondotik joan zara eta nire malkoak kristal tantak bihurtu dira batzuetan nire bizitza bukatu da.
36. Zure begiak zeruak bezala dira eta zu bonboi bat bezala zara.
37. Zure begiak dira hain politak itsasoa berdin.
38. Zure begiak urdinak itsasoa bezalakoak dira, horregatik oso politak dira.
39. Zu ilargia eta eguzkia baino politagoa zara.
40. Zure begiak bi izartxo bezalakoak dira. Zure ezpainak bertso bat botatzen dutenean eguzkia ateratzen da orduan eguna hasi da.
41. Nire bizitzako azukarillo koxkorra zara.
42. Ilargia baino politagoa zara.
43. Zu arrosa, zu lirioa, eta bien artean maitia, bihotza.
44. Gaueko ilargia baino ederragoa zara.

45. Urbasako mendian, txoriak kantari, zure begien barnean, malkoak dantzari. Zu, nire laguna zara, bizitzako onenena, beti ni baino zaharragoa, baina ere bai jakintsuagoa.
46. Egun batean zure ilean galtzen banaiz, zure begiradaren argiak gidatuko nau.
47. Zure goxokia izatea gustatuko litzaidake zure ezpainak ukitzeko.
48. Begipeak eta guztiz ere, ederrena zara!
49. Zoriona zazpi hizkiko hitza da, baina niretzat, bi hizkikoa da: zu!
50. Eguzkiaren argia izan nahiko nuke, zure begietan isladatzeko.
51. Arrainak bizitzeko ura behar duten moduan, ni bizitzeko zu behar zaitut.
52. Alferrik izanen litzateke edozein gauza erranen nizuke, ez baitago hitzik hain neska ederra definitu dezakeena.
53. Amatxo baten maitasuna bere umearenganako, izar handia, urederra da, bere erantzuna ordea, iluntasun beltza da.
54. Zuk inoiz ez daukazu denok dugun zorte ona, zure aurpegia begietsi dezakegula ia beti.
55. Zu zara nire panpina politena.
56. Loreak mendian, arrainak uretan, nire bihotza zurean eta nire bizitza zuretzat.
57. Zure flekilloko ileak usaitzea partxisean jokatzea baino dibertigarriagoa da.
58. Nire bihotza bizi da Sakanan, eta bertan bizi zara zu lastana!!
59. Nire ahotik ateratzen diren hitzek ez dute zentzurik, bihotzak hitz egin ahal izan ezkerro.
60. Lore guztiak moztuko dituzue, lurrak irauli, baina udaberriro bezala, kimu berriek belar zaharrak bultzatuko dituzte.
61. Euri tanta izanez gero udan eroriko nintzateke zure eskotetik sartzeko.
62. Zure irrifarrak bizitza osoa aldatu dit.
63. Zu zara adarra eta ni naiz enborra. Gure artean badago bidezidorra banatzen gaituena, hori da zigorra.
64. Zure begiek... zure irrifarra... zuk... eguna alaitzen didazu.
65. Zu gabe eguna iluntzen zait, aldiz zurekin argitzen zait.